

---

# 4. GAIA: LEHEN MAILAKO DATUEN EKOIZPENERAKO DISEINUA: INKESTA

---

Gizarte ikerketarako teknika kuantitatiboak

# 4.1. INKESTA: EZAUGARRIAK ETA MOTAK

## INKESTAREN EZAUGARRIAK

- **Definizio orokorra:** pertsona lagin batetik ahozko edo idatzizko informazioa jasotzeko prozedura estandarizatu.
- **Definizio zehatza:** lehen mailako datuak eskuratzeko, populazioaren lagin adierazgarri bati zuzendutako eta galdetegi baten bitartez egituratuta dagoen tresna da.
- Galdera berdinak eta orden bera guztientzat.
- Aspektu **objektibo** eta **subjektiboak** izan ditzake.
- Erabilpen anitzak: baliagarria gertakari sozialak esploratu, deskribatu edo beronen arrazoiak ulertzeko.



# INKESTAREN ABANTAILAK

- Ikerketa **unitate handiak**
- **Gai asko.**
- **Populazio ezberdinen** arteko alderatzea
- **Garai ezberdinen** arteko alderatzea
- Adierazle **numerikoak** sortzeko aukera.
- Adierazkortasun **estatistikoa.**
- Aspektu **objektibo** eta **subjektiboak**



# INKESTAREN DESABANTAILAK

- Ez ditu **motibazioak** azaltzen
- Gai **konplexu** edo **ezezagunentzat** desegokia.
- Elkarrizketatzailearen **sesgoa**
- **Erantzuten** ez duten pertsonak
- **Zintzotasun** edo **bat batekotasun** falta.
- **Indibiduala** eta **sinplea**
- **Zailtasun tekniko** handiak
- **Kostu ekonomiko** handia.



# GALDETEGIAREN DISEINUA

➔ Helburuak -> Hipotesiak-> Aldagaiak

➔ Nori zuzendu?

➔ **Inkesta mota aukeratu**

➔ Galdera mota hautatu eta idatzi

➔ Galdetegiaren sarrera eta jarraibideak

➔ Beste aspektu formalak

# LAU INKESTA MOTA



**Buruz burukoa**



**Poste bidezkoa**



**Telefono bidezkoa**



**On line edo posta elektronikoko bidezkoa**

# ZEREN ARABERA AUKERATU?

**Nori  
zuzendua?**

**Edukiak**

**Bitartekoak**

**Helburuak**

# BURUZ BURUKO INKESTA, EZAUGARRIAK

- Banan-banan, bakarka.
- Inkestatzaile batek egiten du.
- Berak egiten ditu galderak, jasotzen ditu erantzunak
- Oso erabilia.
- Informazio bilketaren kalitatea altua.
- Inkestatzailea oso garrantzitsua.
- Gomendagarria: gai konplexuak, galderen ulermena frogatzeko, erantzunak ongi ulertzeko, informazio osagarria lortzeko, inkestatua motibatuzeko...





# INKESTA EGITEKO TOKIAK



**Etxean**



**Bulego/lokal batean**



**kalean**


# ABANTAILAK

- Lagin aleatorioak
- Material ezberdinak
- Luzeagoa
- Erantzun maila altua
- informazio osagarria
- Kalitatea erantzunetan


# DESABANTAILAK

- Kostua
- Epeak
- Klase sozial altukorik ez
- Elkarrizketatzailearen eragina (fisikoki eta psikologikoki)
- Irisgarritasuna
- Arazo geografikoak

# INKESTA TELEFONIKOAK



**Telefono bidez burutzen diren inkestak dira, aldez aurretik zehaztutako pertsona lagin bati eta aurretik ere zehaztutako galdetegi baten bitartez.**



**Lagin-unitateak: pertsonak, etxeak, enpresak edo bestelako erakundeak. Edonola erantzun beharko duen pertsona ondo zehaztu behar da aldez aurretik.**



# ABANTAILAK


- Merkeagoa
- Epe laburragoa
- Irisgarritasun geografikoa
- Irisgarritasun soziala
- Lagin-unitateen errepikapena errazten du
- Ikuskaritza erraza
- Datuen sarrera paraleloa

# DESABANTAILAK

- Telefonorik gabeko etxeak
- Orain mugikorrak
- Bestelako materialik ez
- Laburragoa (10 min)
- Sarrera azkarra eta zaila
- Zenbait pertsona mota topatzeko arazoak
- Ahotsa
- Esaldien luzera

# POSTA BIDEZKOKO INKESTAK

- Posta bidez bidaltzen da inkesta, erantzun ostean bidaltzaileari bueltan igortzeko
- Ez dago inkestatzailerik, bakarrik inkestatua
- Oso publiko zehatza. (Adib. aurretik informazioa jaso)
- Adostua izan ohi da, bidali aurretik.
- Bueltarako gutun-azal frankeatua
- Diseinua: sarrera, argipena, erraza eta ez oso luzea




# ABANTAILAK

- Merkeagoa
- Irisgarritasun geografikoa
- Irisgarritasun soziala
- Erantzuteko denbora
- Dena oso argi azaldu behar da.
- Ondo idatzia
- Erantzuteko erraza.


# DESABANTAILAK

- Askok ez dute erantzuten
- Ez dago inkestatzailearen azalpenik/erraztasunik
- Galdetegia prestatzea konplexuagoa da.
- Test gehiago eskatzen ditu.
- Zaila da motibatzea
- Galdera irekiek, erantzun urriak

# ON LINE EDO POSTA ELEKTRONIKO BIDEZKOAK



Internet bidez zabaltzen diren inkestak dira eta erantzuna ere edozein ordenagailu edo mugikorretik bidali ahal izango da



Normalean inkestaren zergatiak barnebiltzen dituen aurkezpen-mezu bat igortzen da eta bertan link baterako lotura agertzen da. Bertan sartuz inkesta erantzun ahal izango da.



# ABANTAILAK

- Azkarra
- Oso merkea
- Irisgarritasun geografikoa
- Irisgarritasun soziala
- Erantzuteko denbora
- Dena argi azaldu behar da.
- Ondo idatzia
- Erantzuteko erraza.
- Posta bidezkoa baino erantzun gehiago

# DESABANTAILAK

- Lagin-adierazgarritasunari buruzko zalantza handiak
- Gizarte segmentuaren arabera ezberdintasunak
- Ez dago inkestatzailearen laguntzarik
- Galdetegia prestatzea konplexua da. Test gehiago eskatzen ditu.
- Zaila da motibatzea
- Galdera irekiek, erantzun urriak



# ARIKETA

ELKARRIZKETA GAI ETA  
SUBJEKTU MOTA BAT  
AUKERATU INKESTA  
MOTA BAKOITZEKO

